

panpano

2015eko abendua

aresoko aldizkaria

ZIRI



Atzoko bizipenak, gaurko oroitzapenak

LAGUNARTEA

MERTXE TOLOSARI ELKARRIZKETA

AZIENDEN BILAKAERA

ARESOKO FUTBOL TALDEA

ETA GEHIAGO...

ZENBAKI
HONETAN

Gurekin harremanetan jartzeko:
laga@iparmank.eus

Diseinu eta maketazioa:
astidiseinua.com

Aldizkaria idatzi eta osatu duen lantaldea:
Ana Goñi, Jaione Olazabal, Juana Mari Saizar, Pello Belauntzaran, Uxue Goikoetxea, Eneritz Iraola eta Aresoko Udaleko Euskara Zerbitzua.

AURKEZPENA 3

LAGUNARTEA. 4-9
PESTARI EUSTEN DION SOKA...

1936KO IDATZIA 10-11

GARAI BATEKO ARESO 12-15

MERTXE TOLOSARI ELKARRIZKETA 16-19

AZIENDA BURUAK GALDU 20-22
ETA BIZIMODUA ALDATU

ARESOKO ARESOARREI GALDEZKA 23

ARESOKO FUTBOL TALDEA 24-25

DENBORAPASAK 26-27

ZERGATIK BARRIO TXINO IZENA? 28



Garai bateko eta gaur egungo Aresoko plaza.

Panpanoziriren hirugarren alea da jaso berri duzun hau. 2011n abiatu eta bi urtez behin argitaratzen den aldizkari honek harrera ona izaten du Aresoarren artean. Gustura jasotzen dituzue herritarren kontuak, istorioak eta garai bateko argazkiak.

Hirugarren zenbaki hau "Atzoko biziaren, gaurko oroitzenak" izenburupean dator. Atzera egin dugu garai bateko kontuei erreparatzeko, eta orduko oroitzenari begira ohartzen gara bizimodu urteekin zenbat aldatu den.

Hona hemen aurtengo aldizkarian jasotzen dugunaren laburpen bat: Azienden

eta abeltzaintzaren inguruko erreportaje bat prestatu dugu, azkeneko 15 urteotako datuak bilduz. Datuok nabarmen erakusten dute baserriak izan duen beherakada. Lagunarteari ere tarte bat eskaini diogu, orain arte izandako ibilbidea kontatzeko eta herrian izan duen garrantzia gogoratzeko. Zuetako askok ezagutuko dituzuen pasarteak bildu ditugu kontakizunean. Herriko argazki zaharren albuma ere osatu dugu, herria zenbat aldatu den konparatzeko.

Aldizkari honetako elkarriketako protagonista Mertxe Tolosa Barandiaran da, guztiontzat ezagunagoa *Mertxe Ubide-*

koa esaten badugu. Bere gazte denborara, eskola kontuak, gerrak utzitako oroitzenak eta bere familiaren ingurukoak erreparatu ditugu Mertzerekin. Eta futbolak ere hartu du tarte. Ez gaur egungo futbolak, garai bateko Aresoko futbol taldeak baizik. Akordatzen al zineten ze urte oparoak izan zituen herriko gazteek osatutako talde hark? Oso onak omen ziren! Futbolari izandako 6 lagun gustura bildu ziren gurekin orduko partiduak eta anekdotak kontatzeko.

Guztia ezin orain aurreratu, beraz, badakizue onena zuek irakurtzea izanena. Gozatu!



Gaur egungo Lagunartea.

Lagunartea. Pestari eusten dion soka...

Ez dago jakiterik, noiz eta nola sortu zen pestarako lehenbiziko txinparta. Zein txokotan eta nork sortu zuen Lagunartea. Baina, ez zen nolana hikoia izan orduan sortu zena. Herrian, betidanik izan den ohitura da; zaharrenek bizi izan eta gaur egun ere, bizirik mantentzen dena. Hamarkada desberdinetako herritarrekin bildu gara, Lagunarteaz hitz egiteko asmotan.

1967. urtearen bueltan hasi zen Otxon-Txikiko **JOXE SAIZAR** Lagunartean ibiltzen, «hamasei edo hamazazpi urterekin hasten ginen, baina segun dirue eta. Gaztexas-

goak ere sartzen ziren dirue izanez gero». Noiz arte segi zuten galdetuta, mugarik ez zela izaten aipatu digu «ezkondu arte edo. Batzuk ezkontzearekin batera ateratzen ziren, besteak mutilzaharrak, haiek segi egiten zuten. Nik ezagutu izandu dut mutilzahar koadrille bildu eta haiek aparte eskean ibiltzea, arrautzek bakarra biltzen zituzten haiek».

Bost ospakizun handi

Ospakizunen zerrenda luzea zen «Santa agendan eskean hasi, gero karnabalak,

San Juan bezpera, San Pedroak eta festetan azkena». Bere ustez, denetan hoberenak karnabalak izaten ziren «orduan hiru egun izaten ziren, jaie, astelehena eta asteartea. Eta azken eguna denetan hoberena. Gero asteazkenean salbera joaten ginen, hautsa hartu eta kontuak egitera. Ez genuen apaltzen baina bokadillotxo bat jan bai eta gu pozik, festan segitzeagatik. Zenbat diru zen, zenbat gastu egin genuen... ikusten zen».

Diru kontu horiek zaintzeko ardura, *Maiordomoak* izaten zuen «urtero kanbaitzen zen eta aukeratzen zen erregenetan.



Zubidin hasi eta bukatzen zen pesta. 50. hamarkadako argazkia.

Urte hartan ibili zenak orduan uzten zuen. Eta gero kartekin, urrezko bata ateratzen zitzaiona, bera jartzen zen *Maiordomo*. Egin beharrekoen artean, «soinuari abisatu eta harek bereizten zuen gero eskean ere. Santurue joan eta bueno, hi eta hi eta hi eskuinera. Eta hi eta hi eta hi ezkerre».

«Naranja gorriak ematen zituzten etxeetan. Jendea propio errotera joaten zen eta intxaurrak ere bai»

Joxe SAIZAR
OTXON-TXIKIKOA

Herri guztia dantzan jarritz

Karnabaletan astelehenetan baserrietan egiten zen eskea eta asteartean herrian. Otorduak Zubidin egiten ziren eta «bezperan aparie eta soinue izaten zen eta harekin hasten ginen. Lagun saile izaten ginen, ni kontatue nago 52 lagun. Eta gero denak dantzan. Aber ba hainbeste lagun dantzan... Zenbat jende mugitzen zen karnabaletan». Herrian nabaritzen zen pesta giroa «ixkin guztietan jendea, etxe guztietan jendea, herri guztia moittue izaten zen. Zaharrak, gazteak... denak». Ez zen inor geldirik egoten, «dantzan, sueltoan denak, zangadille eta gain azpi eta porrusalda». Eta indarrak hartzeko, «naranja gorriak ematen zituzten etxeetan. Jendea propio errotera joaten zen eta intxaurrak ere bai».

Janzkera bereziak

Eskean joateko «inork ez ezagutzeko moduan janzen zen jendea. Harek zuen grazie... mairidire handiak, aurpegian kortinak, sonbreroak... ibiltzen genituen». Bitxikeria bat ere gertatu zitzaion umetan «behin sonbrero dotorea egin nuen nik mutil kozkorretan, zer izango nituen ba hamabi edo hamahiru urte. Uso lumekin buelta guztian eta oilagorraren izipuko lumekin. Pedro-neko Domingo eta gizonbata hogei urte inguru zituzten eta esan zidan sonbreroa aber utziko nion. Bi peza eman zizkidan sonbreroa uzteagatik. Nere sonbreroarekin ibili zen».

Musikaririk ez zen falta izaten Lagunarteko inguruan. Normalean kanpotik etortzen ziren musikariak «haiek karnabalak Villabonakoa etorri zenen... Tenore hartan, ongi iruditu zitzaiolako Igaldeneko Ramonek 10 duro eman zizkigun eskean (50 peza). Eta hori orduan asko ez...askoze gehio zen. Zubidin apari batek 7 peza baliu zuen gutxi gora behera, pentsa zenbat zen 10 duro. Izaneze txistulari harek herri guztie airetan eduki zuen».

Garai haietaz hitz egiterakoan sortzen zaien emozioa ikusita, ongi pasa zuen seinale!

Duela urte dezente utzi zuten ofizialki Lagunartea, baina ez dute hutsik egiten larunbatero egin ohi duten lagun arteko afarira. Afalondoa aprobeztatuz, **JOAKIN, ESTEBAN eta JOSE MANUE**lekin aritu gara hizketan, gaztetako kontuak astinduz.

Hauek ere hamazazpi urteren bueltan hasi ziren Lagunartean ibiltzen «soldaduska eginda utzi zuten askok eta taberna itxteak ere eragina izan zuen». Tabernan, Zubidin, izaten ziren pesta guztiak «bazkari, afari eta ondorengo dantzak. Hogeia lagun inguru juntatzen ginen. Elurra bazen elurra, euria bazen euria... ezerk ez zuen pesta gelditzen. Orduan eta bizkorrago eta barrua beroago ibiltzen ginen».

Karnabalak, Santa Ageda bezpera, San Pedrotan bi egun eta pesta laugarrenean elkartzen zen orduko Lagunartea. «Eskean ere asko ibiltzen ginen eta diru horrekin,



Eguraldia ez da inoiz traba izan, elurpean ere gustura dantzan.



1983an Mantrolan ospatzen ziren pestak.

bat eta beste, izaten zen akordeona». Pesta laugarrena ere Lagunarteak antolatzen zuen «eta orduan biltzen zen diruarekin, San Bartolometan txokolatea prestatu eta neskei gonbidatzen zitzaien».

Bi ibilbide

Eskean, hasiera batean, «neskak zeuden etxeetara bakarrik» joaten zirela aipatu digute «gero hasi ginen denetara joaten». Zubidin elkartu ohi ziren eta San Pedrotan ibilbide bat eta karnabal eta bestelako ospakizunetan beste ibilbide bat egiten zuten. Sanpedro egunean «elizatik behera, txistua alde batetik eta akordeona bestetik, batzuk Azpikotxe, Mañene... aldera Arraio... hortik bera joaten ziren. Besteak Etxeberri, Igalde, Martikone... aldera. Karnabaletan berriz, Zubiditik abiatu, Martikone, Etxe-txiki, behetik gorantz... Azpikotxe, dena pasatzen genuen. Santurura igo eta handik Olatxeta, Matxain... aldera joaten ginen. Baserriak beti bi taldetan, separatuta egiten genituen».

AKORDEONA

«67an hiru eguneko akordeona 60 duro kosta zen eta garai hartako diru asko zen, ordua sei duro irabazten zen, pentsa!»

Santa Ageda bezperan ere eskean

Santa Ageda bezperan «Zubidi tabernan bildu eta aurrena baserriak pasatzen genituen eskean. Gero iluntzen akordeonarekin herrie. Santurura joan ta bi banda, bi aldetara banatzen ginen, *echando ostras* egiten zen eskea akordeona hartuta. Gero Zubidira joaten ginen, han apaldu eta pesta egiten genuen. Berdin zuen Santa Ageda bezpera aste tartean bazen ere, lasai ibiltzen ginen pestan». San Pedrotan bi egun izaten ziren, mezetara joan aurrena, hamaiketaxo bat eman jendeari eta gero

hasten ziren eskean «akordeonarekin alde hontatik eta txistuarekin bestetik. Hala egiten zuten gure aurrekoek ere. Alkatea zegoen aldean txistua ibiltzen zen eta beste aldean akordeona».

San Pedro egunean Zubidin bazkaldu eta arratsaldean akordeona ateratzen zuten. San Pedro bigarrean «baserrietan eskean ibili, Zubidin bazkaldu eta arratsalden berriz akordeona plazara ateratzen genuen. Bi egun osoak egiten genituen. San Pedro egunean eta bigarrean, astea bazen edo ez bazen...». Gaupasa ere egiten zuten, pesta laugarrenean, «batxuri zopa jaten zen. Gaupasa bat bakarra izaten zen urte guztian, bakarra baina ona: pesta laugarren hortako meza entretenitua izaten zen normalean».

Akordeonaren erritmoan

Akordeonak jartzen zuen beti pestarako doinua «profesional bat ekartzen genuen kanpotik, Andoaindik, Berastegitik... Elizondora propio joan izan ginen Almandoz

«Gaupasa bakarria izaten zen urte guztian, bakarria baina ona: pesta laugarren hartako meza entretenitua izaten zen normalean»

famosoan bila, Espainia mailan hoberenetakoa, Arantzara ere bai...». Eskerako edo plazako dantzaldirako bakarrik ez, akordeona Eguberri, Urteberri eta Errege-egunean ere ateratzen zen «horietan ez zen eskean ibiltzen eta poltsatik pagatzen zen. Denon artean. 67an hiru eguneko akordeona 60 duro kosta zen, eta garai hartako diru asko zen, ordua sei duro irabazten zen pentsa». Eskean aritzen zirenetan ere, «biltzen zen diruarekin juxtu juxtuan pagatzen zen akordeona, aparria poltsatik normalean».

Dantza eskatuta, kalabazarik ez

Lagunartekoa mutilek bakarrik osatzen zuten arren, etxeetan dantzan denak ibiltzen ziren, «neskek akordeonaren atzetik segitzen ziguten». Plazan dantzan aritzea debekaturik zegoenez, eskean, etxeetan aprobetxatu behar izaten zen dantzatzeko. Gainera, «gustora ibiltzen ginen, etxeetan kalabazarik ez zutelako ematen». Emakume ezkondu, gazteak, zahartxoagoak denak aprobetxatzen zuten dantzan egiteko. Afalondoetan berriz, Zubidin aritzen ziren dantzan eta «han gehienez ere hiru neska ezagutu izan ditut nik eta haiekin egiten genuen denok dantza. Pieza batean, bost bat aldiz kanbiatzen zuten parejaz. Beste neskarik ez zen izaten eta».

Zekienak zekiena kantatu

Soinean berriz, blusa bat janzten zutela diote «lore askorekin berde bat. Denok berdina egin genuen eta Arrosin lana egiten zuten neskek, sobreroak egiten zizkiguten, zapelak koloretakoak». Eskean gailetak eta ardoa ematen zuten eta diru pixka bat. Gehienetan barrenera sartzen ziren eta «etxeoandreek betiko galderak egiten zizkiguten, *asko al zabiltzete? uretik?* Akordeonarekin batera «kantaren batzuk ere izaten ziren... *Zakinak zakina* kantatu eta aurrera. Batzuk gehixeago, besteak gutxixeago jakiten zi-



Mantrolako pestatan aitzakia gutxi behar izaten zen ongi pasatzeko.

ETXEKOANDREAK ESPEROAN

«Gehienetan barrenera sartzenginen eta etxeoandreek betiko galderak egiten zizkiguten, *asko al zailtzete? uretik?*»

tuzten. Batzuk atrebituagoak ziren berez eta trago batzuk edanez gero lotsatiena ere atrebitzen zen. Ura edanda behar du, ardoa edandakoan edozeinek kantatzen du».

Idatzi gabeko legeak

Lagunarteak, egoera berezi batzuen aurrean, bazituen jokatzeko modu batzuk. Esate baterako, urte hartan etxeo norbait hil bazen, bisitan joan baina musika ez zen jotzen «bi urte irauten zuen orduan lutoak eta bi urte haietan joan bai baina akordeona isilik, soinurik ez zen izaten». Norbait ezkontzen zenean ere, ezkonberriek izaten zuten Lagunartekoen bisita «herrian ezkon-

tzen bazen eta bazkaria Patxikunen fondan egiten bazuen, nobioaren kontura merienda izaten zen. Eta ezkontza herritik kanpo egiten zenean, bere etxera joaten zen bisitan. Gainera ezkondu eta Lagunartea uzten zenez, diru bat ematen zioten Lagunarteari». Ez hori bakarrik, Kuban edo Ameriketara, kanpoan ibilitako norbait herrira bueltatzen bazen, beregana ere joaten zen bisitan eta dirua edo ahal zuena ematen zuen honek.

Koheteekin gauza onik ez

Bizi izandako anekdoten inguruan galde-tuta, irribarrea atera zaie guztiei. Zubidiko pareten artean gertatua, pareta haien artean geratuko da, baina koheteekin izandako abenturak, aski ezagunak omen dira honetako «Santurura bagindoazen kriston kohete pilarekin eta denei batera eman zien sue. Han ziren hankape eta bazter guztietatik tiroak... a ze zalaparta! Ui ui uiiiiii». Zubidiko gainean zegoen tubo batek ere esperimentuak egiteko balio omen zuen «tubo handia zen eta han sartuta kohetea, noiz lehertuko zen zain egoten ginen, egun batean lehertu eta tubo guztia txikitu zen arte».

Zubidiko garaiek, Mantrolakoei egin zien lekua eta aurreko Lagunarteak zituen ohiturak mantendu zituzten hauek ere. Pestarik pesta eta belaunaldi batek besteari erreleboa emanez, Lagunartean lehenbiziko emakumeak sartu ziren urtea iritsi zen. Ez zen apropos bilatutako aldaketa izan, naturaltasun osoz gertatu zena baizik. **PALAZIOKO MARIA ESTHER** zen emakume haietako bat «ume batzuk ginen, 16 urte ere ez genituen izango eta 15 urte zaharragoekin hantxe ibiltzen ginen pestan, denok elkarrekin».

Pesta giroa txoko guztietara zabalduz

San Pedroak eta karnabalak ospatzen zituzten hauek «Larrea elkartean biltzen ginen, bat sukaldean aritzen zen eta besteak ahal zenean laguntzen». Askorik ez zutela behar dio «akordeonaren doinua eta gazteok genuen pestarako gogoia ikaragarria zen».

Eskean ibiliaz «disfrutatu egiten genuen» azpimarratu digu, «baserri guztiak egiten genituen, oinez, bakar batera hutsik egin gabe». Baserri, etxe... guztietan beraien esperoan egoten zirela dio «pesta giroa herrian, bazter guztietara zabaltzen zen eta ez ginen etxe bakar batean ere atarian geratzen, beti sartzen ginen barrura». Belaunaldi desberdinen artean, hartu-emanak izaten zen horrela «su ondoan berriketan egoten ginen lasai eta baita dantzan ere, Joxe Angel ibiltzen zen akordeonarekin eta makina bat arin arin eta fandango dantzatzen genituen».

Eskean xelebrekeriak

Eskean baserri baserriko bidean, «jateko pixkoak eta ardoa ateratzen ziguten» aipatu digu, eta herrira bueltan nabaritzen omen zen umore ona, «garo tartetik ibiltzen ginen, meta ondoan argazki polit askoak ere baditugu... beti umore hobereanean». Halakoa omen zen zuten pestarako grina «goizaldean herrian musika bukatu eta aldameneko herrietara parranda egitera joaten ginela. Ederrak entzun behar izaten genituen eguna ongi argituta etxeraten ginenean».

Jantziak eta karroza

Eskean ibili aurreko egunean, denek ateratzen zuten armairutik blusa koloretsua «gaur egun ibiltzen dutenaren oso antzekoa zen, berdina ez bada». Karnabaletan berriz, egun



Bideko meta belarrek denetarako aukera ematen zuten. 90. hamarkada hasierako argazkia.



Kotxeak ere girotu izan dituzte eskean ateratzeko.

batean elkartu eta denek adosten zuten zertaz jantzi behar zuten, gogoan du mexikarrez jantzeko trajeak nola josi zituzten eta baita *Negríta zunbonaz* jantzi ziren urtean egin zituzten barreak ere. Karroza ere egiten zuten «Jauregineko traktorea, Batistikorena, hartu eta apaindu egiten genuen, inguruko denek laguntzen zuten».

Oraingo gazteei begira jarrita «pesta egiteko modua asko aldatu» dela dio. Kezka ere sortzen dio horrek «geroz eta egun gutxiago antolatzen dituelako Lagunarteak. Hiru egunetako ospakizunak zirenak bi egunera pasa dira. Batzuk ia desagertzeardade. Guk pestak bizi egiten genituen, orain ez dut hori ikusten».

Lagunartea uzten azkenekoak izan dira pestetako **KUADRILA GORRI eta BELTZEKO** kideak. 30 urteren bueltan denak, belaunaldi berriei utzi diete lekua «hala ere inbiria punttu bat izaten da eta aterako ginatete berriro eskean». 20 bat laguneko koadrila biltzen zen, «hamar bat urteko adin tar-tekoak».

San Pedro eta karnabalak antolatzen zituzten beraiek, hiru eguneko festa bakoitzean, «ostiralean Pake-Tokin afaria egiten genuen, Lagunartekoak bakarra eta hurrengo egunean goizeko 9etan geratzen ginen gosaria prestatzeko. Beti izaten zen berandu iristen zenen bat!». Baserriz baserriko bidari ekiten zioten gero, blusa koloretsua jantzi eta zahatua bizkarrean zutela. Akordeonaren edo trikiti eta panderoaren laguntza izaten zuten eta «kantuan eta dantzan ibiltzen ginen».

Eguraldia ez zen oztopo

Eguraldiak ez zuen eragin handiegirik Lagunarteko giroan «elurrarekin gustora ibiltzen ginen busti-busti egin arte. Beroa zenean, etxe atarietako mangerak hartu eta elkar bustitzeko ohitura hartu genuen. Eta euria egiten zuenetan berriz, kotxeetan egiten genuen ibilbidea. Hala ere elurra euria baino gehiagotan tokatu zitzaigun, urte dezentetan».

Eskeko xelebrekeriak

Bideko ataka eta malkarrak ere gora beharren bat sortu izan dute eta baita koheteren batek ere «Santuruko belazean kohetea botatzen hasi, bertan lehertu zen eta kohetea eskuan zuena lurrera, nahiko parrak egin genituen».

Baserrietako buelta egin ondoren herrira jaisten ziren, «batzuetan bazkaltzera eta besteetan bazkalordua ederki pasata». Iluntzean, musika plazara ateratzen zen eta batzuk musikarekin plazara joan eta beste batzuk soziedadean afarirako mahaiak jartzen aritzen ziren, «afaria panaderiko Juanitok prestatzen zuen, axuria labean». Afalondoan, «batzuk tragoan lasai egon eta besteak dantzan» aritzen ziren.

Igandean, «nahiko lanekin goizean jaiki, ordua 09:00etan izaten zen gosaria prestatzeko, baina lehenbizikoa ailegatzera 10:00ak izaten ziren. Gose handiegirik gabe gosaldia eta San Pedrotan santua ateratzera joaten ginen. Eguraldi ona bazegoen San Pedroa herri guztitik ibiltzen zen, gaueko



1999ko San Pedroetan, prozesioa bukatuta.



2006ko inauteriak.



Ez dakigu notaren bat ongi jo ote zuten, baina zalaparta sortu zutela seguru. 2005eko inauteriak.

tragoak botaz, izerdi hotza ere maiz...». Herriko eskea egiten zen gero eta bukatzeko Lagunarteko bazkaria.

Giro bikaina

Giro bikainean ibiltzen zirela diote behin eta berriz eta etxeetan ere gustora hartzen zuten beraien bisita «nahikoa jan eta edana ematen ziguten, batzuetan gehiegitxo eta dena. Eta gu, dena bukatu arte ez ginen etxetik joaten».

Azken urteetan, gauzak aldatzen ari direla nabari du «kuadrila tikiagoa geratu da Lagunartean eta oraingo pestak ez dira guk bizi izan genituenak bezalakoak. Ezta gure guraso eta aiton-amonek kontatzen zizkiguten bezalakoak ere. Giroa da aldatu dena. Baina ez bakarrik Lagunarteko giroa, orokorrean gizartea aldatu da». Baikorrek dira ordea, eta Lagunarteko soka ez dela etengo espero dute «ea oraingoek Lagunarteari eutsi eta belaunaldi berriak indartsu etortzen diren».

1936ko idatzia

Panpanozirira ekarri dugun testu hau 1936ko ekainekoa da, eta “El día” egunkari abertzale elebidunean argitaratu zen. Aresori buruz ari denez, eta orduko bertako errealitatea ezagutzeko ere balio digunez, hona ekartzea erabaki dugu. Euskara da idatzi horretako gai nagusia, eta interesgarria da oso bertan esaten dena aztertzea. Testua hor duzue, oso-osorik irakur dezakezue eta zuen ondorioak atera. Guk, gure aldetik, testuaren irakurketak eragin dizkigun gogoetatxo batzuk ekarri dizkizuegu, zuekin partekatzeko.

- Euskararekiko kezka: jakina da euskararen egoerak eta etorkizunak kezkatzen gaituela gaurko euskaldunok eta euskaltzaleok. Bada, testuak argi aski erakusten duenez, kezka hori ez da gaurkoa. Testu honetan bezala, garai hartako idatzi askotan arrangura sakona sumatzen da euskaltzaleen gogoan. Diskurtso ilun asko egin zen garai hartan, eta orduko askok ere ez zuten batere argi ikusten euskararen etorkizuna. Idatzi honetan, pasarte honek erakusten du kezka hori: *“Euskara atzeraka dijoa aurrera bearrean. Oraindik bere nagusitasuna senti da an nunai. Alaz guztiz, maxkaltzen dijoa. Bere gixa dijoa euskera. Euskaltzaleak ez baitio aize egiten”*. Duela 80 urte ere, beraz, bazuten gure hizkuntzarekiko kezka, eta gauzak ilun ikusten zituzten. Eta kezka hori Areson bertan sumatzen zen, honelaxe baitio egileak: *“Areso’ko euskararen sua bere gixa itzaltzen ari zan. Pitinka pitinka. ¡Erri askotan bezalaxe!”*
- *“Obea genikek milla bider gure aurrak erdeldun utsak balira”*. Aresoar batek esandakoa zen esaldia. Ziur gara aresoar guztiak ez zutela hala pentsatuko, baina batzuek bai, eta horrek ere zer edo zer adierazi nahi du. Euskara orduan ere hizkuntza gutxitua zen. Aresoar guztiak edo gehien-gehienak euskaldunak izanzen ziren, baina askoren begietan gaztelania izanzen zen prestigioa zuen hizkuntza, botereak erabiltzen zuena, gizartean goian zeudenek zerabiltena, komunikabideetan erabiltzen zena, hiriburuan, kulturean... Gaztelaniarik ez zekienak —eta orduan

asko ziren halakoak—, zalitasunak izanzen zituen zenbait gauzatarako, eta gizartean gora egiteko bidea moztuta. Euskaldunak, askotan eta zoritxarrez, euskarari leporatu dio horren errua, eta euskararekiko sentimendu oso negatiboa eragin dio. Horren ondorio izaten ziren aipatu dugun esalditxo hori eta antzeko beste asko, 1936an entzun zitezkeenak, baina urte dezente igarota ere oraindik ere entzuten zirenak.

- Maiztegi anderea: gure istorio honetako protagonista dugu Maiztegi anderea, irakasle donostiarra. Izan ere, bera izan zen euskararentzako giro gaizto hartan euskara goratzeko eta hauspotzeko urrats bat eman zuena, Aresoko eskolan euskarazko jaialditxo bat antolatuta. Ez zen oso ohiko gauza izanzen, ziur asko, eta idatziaren egileak sekulako garrantzia ematen dio momentu hartan horrelako gauzak egiteari: *“Bijoakizu gure zorion beroena. Orain seguru bai gera. Zure euskaltzaleak eta zure ikastolatxoko nezka mutikotxoek laguntzaz garretan irau eraziko diozu Areso’n eusko suari”*.

Uzturrek —hori baita artikuluaeren egilea— garrantzi handia ematen die irakasleen lanari, euskarari eusteko lanari dagokionez. Aresoko eredu ona aipatzen duen bezalaxe, idatzian bertan Tolosa ondoko beste herri bat aipatzen du, hango irakasleak aurkako jarrera baitauka: *“Eta gaizto bezin pizkorra dalarik, guraso iñozoei sinistra erazi die euskera ganbararatu bear dan tresna zar bat baño ez dala”*. Garai hartan, eta baita lehenago ere, euskaltzaleak sumatzen hasiak ziren



euskarari eusteko eskolak egiteko handia izanzen zuela. Aresoko adibide honek ere hala erakusten du.

- Euskara eta etxeko sua: azken urteotan, euskara iraurarazteko eta normalizatzeko lanaz ari garenean, askotan aipatzen da “amaren sua” ren metafora. “Aitaren etxea” eraiki behar den bezala, “amaren sua” piztuta eduki behar dela esaten da sarritan. Bada, Aresori buruzko lekukotasunek erakusten digun bezala, ideia edo metafora hori ere ez da gaurkoa. *“Etzazu sua elikatu eta itzali egingo zaizu. Autsak gorde dezake txingarra, baño au ere auts biurtuko da”* esaten du aurrena Uzturrek, eta pixka bat aurrerago *“Euskerari buruz berdintsu gartetzan zaigu. Sua baitda; gure etxe zarra berotzen dun sua”*.

BIARKOARI BEGIRA... MAIZTEGI ANDEREA

Antzerki jaitxo baten egitarau edo programa daukat begi-aurrean. Muiñez ongi ornitua eta kanpo apala. "Jelatinak" ez baitu geiagorik opa.

Ikusi dezagun. Amar aldiz irakurri dizut eta beste ainbestetan josiko dizkiot oraindik begiok. Izan ere azaleko marrasiak ortara eragiten baitdizu: sorgin itxusi bat erratz da guzi atso agureei mintza eta mintza; ume mukitsu bat karraxika...

Ondoren, auxe: "Aresoko nezka mutikoak egingo duten antzerki jai".

Teatroa, abestik, dantzak... ona programatxoaren muiña.

Gauza berririk ez noski. Eta ala ere poz zirrara senti dizuegu gurean irakurte-aldi bakoitzean.

Igaroa dezute jai-aldia. Joan zen illaren 24'ean egiña.

Aresotar bateri aspaldi ez dala entzundako esakuntza batetzaz oroitu naiz: "Obea genikek milla bider gure aurrak ereldun utsak balira".

Eta bat-batean, Areso'n bertan egin zan jaiaren berri ematea bururatu zait. Aizatu bearrekoak baitdira olako jaiak. Badu onek bere zergatia. Eta Naparroa'ri badagokio areago berriz.

Erri euskaldun bat. Nafarroakoa bera. Euskara atzeraka dijoo aurrera bearrean. Oraindik bere nagusitasuna senti da an nunai. Alaz guztiz, maxkaltzen dijoo. Bere gixa dijoo euskera. Euskaltzaletasunak ez baitio aize egiten.

Etzazu sua elikatu eta itzali egingo zaizu. Autsak gorde dezake txingarra, baño au ere auts biurtuko da.

¡Ta bai tristea dala surik gabeko etxea! Euzko etxeoandreak sua gordetzea izaten dizu egin bearretako bat.

Trebea dezu ontan. Goizean goiz oia ustu duanean sutondoari urbiltzen zaio eta txingarra gar biurtzen du.

Euskerari buruz berdintsu gartetzan zaigu. Sua baitda; gure etxe zarra bero-tzen dun sua.

Areso'ko euskararen sua bere gixa itzaltzen ari zan. Pitinka pitinka. ¡Erri askotan bezalaxe!

Ara ordea Areso'ko etxeoandre mara-tza: irakaslemea bat. Donostiar Maiztegi anderea.

Min egin dio euskararen itzaltzeak. Txingarrak indar galtzen ari ziran. Ta aspoa artu eta aize egin die.

¿Nola? Bere ikastolako nezka mutikotxoak auzpo izan zaizkio.

Oiekin euskel jai aldi bat eratu zun. Jai apala eta batetsu ederra.

Bijoakizu gure zorion beroena. Orain seguru bai gera. Zure euskaltzaletasunaz eta zure ikastolaxoko nezka mutikotxoan laguntzaz garretan iraun eraziko diozu Areso'n eusko suari.

Izan ere zenbat dezaketen irakasleak!

Tolosa'ko ondoko erritxo batean arrotza da irakaslemea. Arritzekoa izango al da an euskararen argia galtzea?

Irakasleak ez daki deus gure gogoaz. Umeak ere ezta arenatzaz.

Ark, eusko gogoa illa balego naiago luke. Eta gaizto bezin pizkorra dalarik,

guraso iñozoei sinista erazi die euskera ganbararatu bear dan tresna zar bat baño ez dala. Eta noski, aresoarrarena: "Obea genikek milla bider gure aurrak ereldun utsak balira".

Umeak, berez, ez zerurako ez lurrerako ikusiko ditugu. Etxean izkera bat eta ikastolan bestea nola leike? Eta euskerarik bear ez bada zergatik eta zertarako irakatsiko zioten bere gurasoak? Zergatik erdera ez irakatsi etxeo sutondoan?

Illunegia ikusten dizugu erri askotan etorkizuna. Gerokoa urratu nairik asten gaitzaizkizu eta inpernua begiz jotzen dizugu.

Areso'ko Maiztegi anderea besterik adieraztera datorkigu: itxaropena demaigu bere euskaltzaletasunak.

Badute pranko irakasle euskaldunek azkeneko onen jokabidean zer ikasi. ¿Berak gure erri alde egiten duna zergatik ez beste askok?

Etorkizun arrosa kolorekoa datorkio gure erriari. Estatutoa ba omen datorkio ba. Eta ordun mila bazterretan zirituko al dira Maiztegi anderea bezalakoak.

Erri euskaldun guzietan irakasleak euskaldunak izango baitdira.

Baño zer diot? Erri euskaldun guzietan? Ez! Naparro'ko ainbeste eta ainbeste erri euskaldunetan ez beintzat, oraingoz, gure Estatutuari eskerrak. Tamalez aitor bear.

Erri euskaldun oietan Areso'ko irakaslemearen gixako euskaltzaleak sortuko al dira. Berak tajutu dun programatxoaren gixakoak iustea izango al degu.

Gaurko zorionak, zuri, anderea. ¿Urrengoak nozentzat ote?

Uzturre

- Etorkizunaz: idatziaren pasarteren batean geroa beltz samar marratzu digun arren, Aresoko euskararen sua itzaltzen ari dela esanez, bestelako aldarte bat ere ikusten zaio egileari geroxeago: "Areso'ko Maiztegi anderea besterik adieraztera datorkigu: itxaropena demaigu bere euskaltzaletasunak". Garai hartan bazetorren Estatutuak nolabaiteko itxaropena ere eragiten zion. Ez zuen pentsatuko, hala

ere, bere idatzia argitaratu eta hilabetera altxamendu faxista gertatuko zenik eta horrek hamarkada askotako itzalaldi eta ilunaldi krudel eta gogorra ekarriko zuenik. Baina ez zuen pentsatuko, ziur asko, ilun eta itzal horien guztien artetik euskara berpizteko ahalegin ikaragarria ere sortuko zela, besteak beste ikastolak eta eskola euskaldunak sortuko zirela eta, esate baterako, 2015. urtean Aresoko

eskolan haur guztiek normaltasun osoz euskaraz ikasi eta euskaraz biziko zirela.

Garai bateko lekukotasun polit bat eman digu *El Día* egunkariko testu honek, eta hainbat ondorio ateratzen ere lagundu diezaguke: besteak beste, aurreikuspen ilun samar batzuen gainetik, aresoarrek jakin dutela beren hizkuntzari bizi-bizi eusten. Poztekoa bada, baita zoriontekoa ere.

Garai bateko Areso

Aurreko bi aldizkarietan egin dugun bezala, oraingoan ere gure herriko argazki bilduma osatu dugu. Ohartuko zaretenez bakarren batzuetan 100 urte baino gehiago egin behar da atzera. Garai bateko ohiturak eta tradizioak erakusten dizkiguten argazki zaharrak dira eta horiei esker agerian geratzen da herria zenbat aldatu den eta baita herritarrak ere. Ea ezagutzen dituzuen!



1958. urtea. Herriko neska-mutikoen jaunartzea.



1950. urte ingurua. Udaletxeko balkoitik neska koadrila begira.





1899-03-01. Martiñone eta Lobidi arteko zelaiko ataka.



1965. urte ingurua. Patxikune atarian.



1900. urte ingurua. Prozesioa elizako aterpean.



Udaletxea berritu aurretik.



1963. urtea. Belakuko familia, Txillenekoa Emilia eta Jorgeren ezkontzan.



Herriko gaztea



San Migelen prozesioa.



1977. urtea. Sokatiralariak.



ak Gorritiko pestetan.



1906. urtea. Kanposantuan, Juliana Nazabal eta Bautista Aranalde, apaizaren alde banatan.

Mertxe Tolosa Barandarain

Izaera handiko emakumea



Senarrak eta biek erosi zuten Arraio etxea.

Elkarrizketatu dugun emakumea denek Mertxe Ubidekoa bezala ezagutzen dugu, nahiz eta bera Bordan bordan, Auntzenen eta Arraion bizitua ere izan den. Berarekin izan dugun elkarrizketan, batez ere lau gizon aipatzen dizkigu. Alde batetik bere aita **Ignacio**, oso gogorra zen baina alaba aitaren begikoa zenez berari buruz oso oroitzapen onak

ditu. Bestaldetik **Luis**, bere gizona; begi urdinak, ilea ondulatua eta altua zen mutil gaztearekin maitemindu zen Mertxe eta 50 urtez ezkondurik egon ziren. Hirugarren gizona **Ignacio Bengoechea** izan da, Luisen lehengusua, etxean hainbeste lagundu zuen gizona, lagun bikaina. Eta azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, **Jose Mari**, bere seme bakarra; hura zendu

zen egunetik ez da inoiz ahaztu, berarekin egunero oroitzen da.

Non jaiotakoa zara? Zenbat senide zineten?

1932an jaioa naiz ni, irailaren 23an, Ubiden. Orain lau senide gara bizirik, baina guztira sei ginen. Bi hilak dira. Gure amak 49 urterekin izan zuen Joxe Antonio, eta



Etxe aurrean duen baratzean askotan arizten da lanean, Mertxe.

geroztik lau izan ginen. Nire ama Aresoarren, Mañenekoan, nahiz eta Bunon jaioa zen. Aita berriz auskalo nondik etorri ote zen, Tolosa abizena zuen eta... Etxarri Aranazkoa zela zioen, handik etorri zen Aresora.

Zuen garaiko eskola nola zen?

Gure garaian nesken eskola eta mutilen eskola zeuden Areson. Orain Bake-Toki elkarte dagoen tokian mutilen eskola zen, trinketea eta guzti. Erdiz bestaldera, berriz, nesken eskola zen eta orain gimnasioa dagoen tokian beste trinketea zegoen, guk ibiltzen genuena. Ikuilu xaharra ere hor zegoen, egurrak sartzeko... pilota asko erortzen ziren orduan horra.

Zein zen zuen irakaslea?

Gure denboran Don Dionisio izan zen irakasle, mutilen maisua izan zena, eta Doña Felipa bestea, neskekin egoten zena, Erribera aldekoak biak. Doña Felipak bihotzeko gaitza zuen eta eskola gaineko etxean Martiñoneko Fermina izaten zuen neska-me. Oso irakasle gaiztoak ziren, eskuetako behatzak elkartu gora begira eta erregelarekin behatz muturretan joaz aritzen ziren.

Eta zu neskato ona izan al zinen eskolan?

Nik bati bakarrik nion errespetua, Pakita Autzenekoari! Beste guztiak dominatzen nituen nik! Ni aker hutsa nintzen... eta eskolako azkarrenak Alpetteneko Carmen eta ni! Tablatan, gora eta behera eta behitak gora denak esaten nituen nik. Dotrina ere airoso esaten nuen.

Zer jolas egiten zenituzten garai haietan?

Txulotan txuloan jolasten ginen, kanikekin. Tabekin ere asko jolasten ginen eta marroan ere bai, elkar harrapaketa eta harrapatuz gero denak elkarri eskua emanez kate bat egin behar zen. Orduan hankak arinak zituenak laster egiten zuen, baina beste batzuk segituan berotzen ziren.

Eta eskolako garai horien ondoren gerra etorriko zen...

Bai, gerra garaian ni txikia nintzen, baina nik gogoan dut aitak astoa hartu eta goizeko 03:00etan ilun-ilun dena eta goian behian euria igual, eta Axuxtegira nola joaten zen, han galekua genuen. Hara

joan, zaku irina hartu eta etxera etortzen zen. Zapaiteneko Luis bestea, beti elkarrekin ibiltzen ziren, eta ondoren amak ogia etxean egiten zuen. Artoa ere bai, taloa ere bai, eta goseak zegoenak jan egiten zuen... gazta ere baguen, banarra ere bazen, patata ere bai... hori bai biziorik ere ez genuen. Beraz goserik ez genuen pasa.

Zer oroitzapen dituzu gerrakoak?

Abion asko pasatzen ziren orduan. Amona Bordan bordakoak esaten zuen, abiona sumatzen zutenean guztiak lasterka ikuilura jaisten zirela, ikaratuta. Pentsa pasatzen ziren edo ez, gerra bukatu eta geroago Ameriketatik etorri zenean Peiok esan zuen, *"Mote, abionak paste al die oañe?"*.

Nik gogoan daukat gerra garaian aitak esaten zigula, *"Bida, izautze eztezuen jendea ikusten bazue izkutatu laisterrene!"*. Majik esaten zitzaien orduan, jende ezezagunek ziren.

Baina ni ere potra nitzan eta, Patxi eta aita joaten ziren garoa ebakitzera, eta gero bazkaria bokadiloetan nik eramaten nien gazta eta ogia eta txokolatea edo zegoena... eta deskuiduan ikusten baldin banun

gizon ezezagunik ezkutatzeko esaten zigun aitak. Ze beldurra zegoen orduan... Gure galekua baino lehenago Zapaiteneko galekua zegoen eta Zapaitenekoak ikusten nituenean orduan... alibio bat izaten zen.

Garai hartan katekesia ere emango zenuten?

Apezarekin ematen genuen, elizara bertara sartzen ginen. Eta behin Alpatteneko Carmenek eta nik parra egin genuelako sarreran, bankuetatik aterarazi, ipurdian ostiko bana eman eta atarira atera gintuen. Orain adina jakin banuen garai hartan...

Etxeko garbiketa zerekin egiten zenuten?

Etxea mendarekin garbitzen zen. Eskukada bat biltzen zen, zabaldua jarri, eta eskoban kirtena erdian jarrita han benda bildu, sokarekin lotu eta garbitzen zen. Oso ona izaten zen arkakusoentzat, hautsak biltzeko... eta ze usain gozoa uzten zuen...

Lixua egiteko berriz bi katxarro genituen Bordan Bordan, bat arropa urdinarentzako eta bestea zuriarentzako. Bai Bordan bordako amona *exigente* latza zen, garbia zen... Arropa mordoxka egin eta orduan garbitzen zen. Gu Bordan Bordako aska harrizkoan aritzen ginen garbiketan, harria ere propio zeukan, jabona uzteko eta...

Nola ezagutu zenuen Luis?

Luis esnea ekartzera etortzen zen herrira, eta Mantrolan astoa gordetzen zuen lekuaren ondoan egoten ginen. Egun batean aitak ikusi ninduen berarekin hitz egiten eta esan zidan *"ze ai zea itten hemen? Goazen barrena... hemen ez dao emakumea eoteko giroa ta"*. Orduan pentsatu nuen etxeratzerakoan ikaragarritzakoak entzun beharko nituela, izan ere aita oso gogorra zen, baina aita nire alde zegoenez ez zidan ezer esan.

San Ferminak ailegatu ziren eta Luisekin Iruñera zezenak ikustera joatea pentsatu nuen. Hurrengo egunean Zubidiko Batisten autobusa goizeko 05:30ean hartu behar genuen. Ubidesorora joan nintzen belarretara eta han aitari Iruñera joateko asmoa nuela esan nion, eta joateko baimena eman zidan. Ez nuen inoiz pentsatuko joateko baimenik emango zidanik. Luis mutil ona



Bordan borda.



Bordan bordako aska, bertan egiten zuten lixua.

zen, gainera langilea eta ez zegoen bera baino hoberik. Esnatzeko ordua iritsi zenean aitak esnatu ninduen eta han joan ginen biak autobusean.

Nola ezkondu zineten?

Luisek traje grisa eta atorra zuria zuen. Nire soinekoa berriz Tolosako jostun batek josi zidan. Soinekoa beltza zen eta lore grisak zituen, antezko zapata beltzak eta eskularru

zuriak eman nituen. Duela gutxi arte soinekoa gordeta izan dut, ez dakizu ze pena ematen didan orain soinekorik ez izatea...

1956ko urtarrilaren 25ean ezkondu ginen. Ez nuen batere negarrik egin. Ezkondu eta elizatik etxera jaitsi ginen, nire ahizpak jositako arrea han zegoen ikusgai, 12 maindire, 12 *almohada*, 12 bajera... dena 12 izaten zien garai hartan. Gaur egun ez dago horretarako ohiturarik, bai-



Hamaika istorio bizitakoa, gauza asko aldatuko lituzkeen arren, ez da egindakoaz damutzen.

na garai batean hori egiten zen, eta egia esan gaur egun hori tontakeri galanta dela iruditzen zait.

Ezkondutuen egunean elur asko egin zuen eta nire antezko zapatekin han joan ginen Bordan bordara. Iristerako bazkaria prest genuen, *entremes* asko jarri zituzten, salda ere bai, arroza ere bazen, eta gero etxeko oilaskoa jan genuen. Jende asko juntatu ginen, familiako jendea eta beraien familiak etorri ziren. Garai batean ez zen gaur egun bezala, jende asko gonbidatzen zen, gonbidatzen ez bagenituen gaizki irudituko zitzaizela pentsatzen zen. Bordan bordako jangela oso handia zen eta han kabitu ginen denak.

Karnabalak edo herriko festak zentuen nahiago?

Neretzako politena herriko karnabalak izaten ziren. Mutilak atsaretu egiten zi-

ren eta neskak berriz plazako trinketean dantzatzen aritzen ginen ilundu arte. Mutilak plazako izkina batean zain egoten ziren guk dantza noiz bukatuko. Hamar ezkila jotakoan etxera joan beharra izaten genuen eta haiek guri etxera laguntzen ziguten.

Gainera gipuzkoarrak etortzen zirenean Aresoko mutilak harri tiraka ibiltzen ziren. Neskak kentzera etortzen zirelako.

Behin Luis atsaretu zen eta nik bere begi urdinak oso errez ezagutu nituen, eta esan nion eskuak erakusteko baina ez zituen erakutsi nahi, bazekien erakutsiz gero ezagutu egingo nuela. Baina nik ordurako ezagutua neukan.

Gainera Luis eta nik majina bat aldi dantzatu dugu ingurutxo, eta gaur egun etxeok aitona eta amonak zuten ohiturari jarraitzen diotenez asko pozten naiz, ilusio handia egiten dit.

Herriko festak nolakoak izaten ziren?

Zalantzarik gabe garai bateko festak oraingoak baino hobeak ziren. Lehen orain bezala aizkolariak eta musika izaten zen, baina beste modu batera izaten ziren gauzak beste ilusio bat izaten zen. Pentsatu, Guretxokoko Juanito alkate zela su artifizialak izan genituen eta geroztik ez dugu inoiz ikusi.

Gaur egungo Mertxe beste modu batera bizi da. Egunero etxeko lanak egiten ditu eta ahal badu kalera paseo bat ematera joaten da. Telebista ere oso gustuko du eta baita baratzean lan egitea ere. Garai batean jaten zuen taloa faltan botatzen du, batez ere taloa esnearekin.

Ez du bizimodu erraza izan, berari tokatu zitzaion bizimoduarekin konformatu egin beharra izan du. Gauza asko aldatu nahiko lituzkeela esan digu, baina eginda daudenez ez da damutzen.

Azienda buruak galdu eta bizimodua aldatu



Joxe Saizar, sega pikatzen.

Herrian buelta bat ematea nahikoa daazienda kopuruak behera egin duela ohartzeko. Herriko adinekoek diotenez, Areson, ikuiluan egoten zen gehienetanazienda, terrenoak tikiak eta ingurua oso aldapatsua delako. Egizue beraz, orain ariketa, zenbat ikulu geratzen dira herrian?

Nafarroako Gobernuko datuek ere baieztatu egiten dute beherakada nabarmena izan dela. **Behi-azienden** erregistroa begiratu gero, 14 urtean,azienda kopuruak %33.9 egin duela behera ikus dezakegu. Garai batean herriko baserri gehienetan izaten zen behi pare bat, etxean kontsumitzen zen esnea bertatik lortu eta diru-iturria ere bazen, Inazio, Kostante eta Kristobal esneketariei saltzen zietelako

esnea. Pixkanaka etorri zen aldaketa eta inguruko lantokiek indarra hartu ahala, baserrian lanean segitzen zutenek, erritmoa zertxobait jaitsi zuten. Inazio esneketariak ere, orduan utzi zion etortzeari.

Gaur egun, behi-granja kontuan hartzen ez bada, hiruzpalau baserri dira behiak dituztenak Azpikoetxe, Analde, Ibiur... esne-behi bat edo bi mantentzen dituzte gehienetan. Esne-behi hauek txekorrak hazteko edo autokontsumorako erabiltzen dituzte orain. Izan ere, esnea kanpora saldu nahi bada, 225 litroko tankea bete behar izaten da, 30 litro astean eta, kopuru horretara iristea zaila da.

Ardiak, herriko larreetan ikus ditza-kegun arren, garai bateko kopuruetatik urrun daude gaur egungoak. 2000 eta

2014 urte artean Nafarroako Gobernuaren datuen arabera, 600 ardi gutxiago erregistratu dituzte. Garai batean, herriko hamar baserritatik bederatzitan, behi, ardi eta behorrak izaten zituzten. Orain berriz, Olatxeta, Alustizanea, Pedronea, Felipe Borda, Analde... dira ardiak dituzten baserriak. Eta, gehienek lantokiko lana partekatzen dute artzaintzarekin. Baserrian jaiotako eta baserria ogibide bakartzat dutenak ez dira asko herrian.

Zerri-aziendaren kasuan, 2002an 126 buru zeuden, gaur egun berriz 10. Adibide argia, negu partean ikus dezakegu, txerri-hiltzeko ohiturari eusten zaion arren, gehienek kanpotik ekarri ohi dute eta. **Zaldi-azienda** berriz, gorakada izan duen bakarra da, ustiategiak gutxiago diren arren,

URTEA	BEHI-AZIENDA		ZALDI-AZIENDA		ARDI-AZIENDA		TXERRI-AZIENDA	
	USTIATE-GIAK	AZIENDA KOP.	USTIATE-GIAK	AZIENDA KOP.	USTIATE-GIAK	AZIENDA KOP.	USTIATEGIAK	AZIENDA KOP.
2000	27	277	11	31	15	1.861	4	82
2001	24	250	11	49	15	1.859	8	102
2002	24	241	13	64	15	1.834	7	126
2003	23	236	13	64	16	1.627	6	80
2004	24	221	13	64	17	1.786	4	80
2005	24	204	13	64	17	1.779	4	80
2006	22	212	12	59	16	1.403	3	47
2007	22	205	9	56	18	1.531	2	49
2008	19	188	9	58	18	1.477	3	25
2009	17	165	11	64	20	1.458	2	16
2010	18	185	10	79	19	1.317	2	15
2011	16	208	10	81	19	1.266	3	12
2012	14	189	10	84	18	1.216	2	11
2013	14	173	9	78	18	1.228	2	11
2014	15	183	10	88	18	1.200	2	10

buru gehiago daude ustiategi bakoitzean, % 65 egin du gora.

Materiala garesti eta erreleborik ez

«Zenbat material behar duzun jainkoak besterik ez daki eta 30 eurotik gora balio du merkeenak, orain gezurra ere ez dago hortik behera» esan digute herriko base-rritarrek. Eta etekinik ez da batere, «alde batetik ez da harritzekoa, gazteek segi nahi ez izatea ere». Adinekoek abeltzaintza utzi eta gazteek ez dutela segi bistakoa da, 50 urtetik gora dituzte -70etik gertuago askok- abeltzaintzan segitzen dutenek.

Datu horiek ikusita, historian atzera egitea beharrezkoa dela iruditu zaigu. Eta galdezka arituta bestelako bizimodu batekin egin dugu topo, beste balio batzuekin... Bidean zailatasun handiak izan arren, lana erruz eginda, aurrera egitea lortu zuten haien istorioekin.

Garraiorako aukera askorik ez

Plazalako trenaren duela 60 bat urte, garraio bide bakarrenetakoa. Tren horien azpian azpian batetik bestera mugitzeko modua. Iruñeara San Ferminetan egiten zen ferriara ere bertan eramaten ziren azpian



Domingo Belauntzaran, idi pareta eta gurdiarekin.

eta han erositakoak ere trenean ekartzen ziren Leitzara. San Ferminak baino bi-hiru egun lehenago eramaten ziren azpian Leitzako estaziora, gehienbat zaldiak. Merkantzietako bagoietan sartuta egiten zuten bidaia. Zazpitan joaten omen zen trenaren Iruñea aldera eta 10:00etan Donostiara

joaten zen, bueltan zazpitan etortzen zen. Trenbide-orratza Leitzako estazioan egiten zen eta tranbia behera zazpi terdian pasatzen zenez, elkarri itxaroten zioten. Margarita Urtokoa, Frantziskoren ama, egoten omen zen banderatzeko gorriarekin bidea libre zegoen edo ez abisatzen.

Aziendentzat jatekoa

Garai batean, artoa bakarra zen aziendei emateko eta Izku aldean, Peuneko bordako inguruan... dena artoa izaten zen. Horixe izaten zen, belar eta garoarekin batera aziendentzat jateko bakarra. Baba erabiltzen gero hasi ziren. Zaku baba *Patxikunen autobusean* ekartzen zen, autobus mistoa zen hau: aurreko aldean jendea esertzeko tokia zuena eta atzeko aldean merkantziarentzat tartea zuena. Portea kobratzen zuen berak eta astelehenetan Tolosako feriatik eta asteartetan Irurtzongo feriatik egiten zuen buelta. Atzealdea betetzen zenean aurrean, eta aurrea betetzen zenean goiko kargalekuan jartzen zen karga.



Joxe Manuel Olazabal, soroan banabarrak ereiteko lurra markatzen.

Karea eta ongarrria

Soroetarako karea erabiltzen zen, herrian bertan zeuden karobietan egiten zena. Kare bizia zen oso, «ez zen berriketarik izaten, zomorro guztiak hiltzen zituen horrek». Karearen beharra zuten, garai batean ongarririk askorik ez zelako eta zegoena belazeetan erabiltzen zelako. Bizpahiru etxek elkar hartuta osatzen zen karobia, lan handia zuen, gastua ere bai eta gau eta egun aritu behar izaten zen gainera bertan lanean. Gurdi motxa erabiltzen zen gero kare hori herrira jaisteko. Peunenbordako Domingo adibidez, makina bat buelta egindakoa da Berastegiko mugan dagoen karobitik. Karearen erabilera hori gero, pixkanaka galtzen joan zen, pentsuaren erabilera zabaltzen joan zenean ongarrria ugaritu zelako.



Joxe Pellejero gurdiarekin.

Galdu diren balioak

Abeltzaintzak eta orokorrean baserri munduak izan duen beherakadak, hainbat balioen galera ere ekarri du. Auzolanaren indarra handia zen duela gutxira arte, «belarretan, garoan... sagratua zen elkarri laguntzea. Lehenago gizon bat bakarra lanean ikustea arraroa zen, orain berriz, aritzen direnak bakarrik aritzen dira askotan». Lehen mantenuaren truke ematen zen laguntza, «banabar eltzeke erdian jarrita, bertatik jaten zen». Behia umea egiten ari zenean ere han egon behar izaten zen «goizeko ordubiak izan edo arratsaldeko lauak, berdin. Auzoetara ere laguntzera joaten ginen. Telentxonera, Txillenera, Jauregira, Iruneigira, Bordatxurira... zenbat gauetan joan ote ginen eta han zain egon».



Miguel Joxe Pellejero, zezen galantarekin.

Zer behar du herriak?

Areson zer egotea edukitzea gustatuko litzaike aresoarrei? Aukera balute zer eskatuko lukete herriarentzat? Herritar batzuen iritziak ditugu hemenxe:



PATXI BARANDAIN GOIKOETXEA

Nik gustora bi seinale jarriko nituzke herrian, bat Zubidi parean eta bestea Sastine inguruan, hemen kotxeak azkar ibiltzen dira eta bi seinale 40 marcatzen dutenak, herrian mantxo ibiltzeko, bestela azkenean sustoez gain zerbait gertatuko da.



PATXI TOLOSA BARANDAIN

Nik gustora bi seinale jarriko nituzke herrian, bat Zubidi parean eta bestea Sastine inguruan, hemen kotxeak azkar ibiltzen dira eta bi seinale 40 marcatzen dutenak, herrian mantxo ibiltzeko, bestela azkenean sustoez gain zerbait gertatuko da.



NEREA AZPIROZ MUGERZA

Areson haur eskola bat edukitzea gustatuko litzaidake, eta eskolan jangela bat ere bai, batez ere familia batean biak lanean ari badira edo ezin moldatuan egon daitezkeen gurasoei aukera bat do irteera bat emateko.



MIKEL ONSALO LEZEA

Aresok aterpe bat edukitzea gustatuko litzaidake herriko festak edo edozein ekintza direnerako. Horretaz gain autobusek maiztasun gehiago izatea edo linea gehiago jartzea ere ez legoke gaizki, bestela erabat kotxea behar dugu denek mugitzeko, eta aukera ezberdina izatea denentzako mesede.



GENO TELLETXEA ELIZALDE

Nire ustez Areso herri txikia izateko nahiko ongi hornituta dago, baina zerbait eskatzekotan adinekoak eta ez hain adinekoak ariketa fisikoa egiteko kalean jartzen diren makina edo aparatu batzuk jartzea eskatuko nuke.



TXOMIN ARRAIAGO BARBERIA

Komuna eta taberna bat denbora berean egin eta zerbitzu hori herriko edozein ekintza edo festetarako batez ere hor edukitzea ederra litzateke. Plazan orain txozna jartzen den tokian jarriko nituzke zerbitzu horiek, behar denean erabilgarri izateko.

Bestalde Aresok fronton itxi bat izatea gustatuko litzaidake, baina *subentziorik* etorriko ez denez, daukagunari eutsi eta plaza estaltzea ideia hona izango litzateke.



IDOIA ARRAYAGO

Nik agian haurrei begira zerbait egotea eskatuko nuke. Behin haurrak DBH egitera institutorea joaten direnean ez da Guraso Elkartearen daudenean bezala. Hor haurrek ekintza asko dituzte urtean zehar baina gero... ekintzaren bat egin nahi badute askotan kotxearekin ibili beharra dago beste herrietara eramateko, eta askotan kosta egiten da edo ezin da. Nik herrian gazteek egiteko proposamen bat jartzea ongi legokeela uste dut. Gaztetxo asko daude eta atzetik gehiago heldu dira... eta mobilarekin elkarri begira egon beharrean elkartu eta aktibitatearen bat egin dezaten.



IZAR ALGERO CHIVITE

Udarako arratsalde luze eta beroak pasatzeko ongi legoke errekan presa edo pizina moduko bat izatea. Toki ona iruditzen zait herrikoak biltzeko: Bai haur, gazte eta heldu, eta kotxea hartu beharrik gabe nahi dugun aldiroriskatze bat freskatzeko.



INAZIO GOIKOETXEA BARANDAIN

Herrian dauden gauzak aprobetxatzea litzateke ona. Illunbeko mahaia, harrizko losa, hantxe dago, hori zelai zelaia da, zuhaitzak ere badaude itzala egiteko eta hori txukundu, aulkiak jarri, ura jartzea balego jarri... eta itxitu bat egin ardiak ez sartzeko eta hori oso polita litzateke merendero bezala ibiltzeko.

Gero udaletxeko aszensora martxan jartzea ez dakit posible izango den, aukera balego ez legoke gaizki martxan jartzea, hor ibiltzen den jendearentzat eta.

Azkenik plaza txukuntzea ederki egongo litzateke. Ez dakit fronton berririk egingo den eta beraz, daukaguna mantentzea litzateke ona.



Aresoko futbol taldea Afizioa, guztiaren gaineratik

Askok jakingo ez duzuen arren orain dela urte asko Areson gazte batzuk elkartu eta futbol talde bat osatu zuten, inguruko herrietako beste futbol taldeen kontra jokatzen ibiltzen zena. Gu futbol talde hartako kideak elkartzeko saiatu gara eta talde haren informazioa lortzen. Denak elkartzea ere ez da erraza eta horietako seiren iritziak jaso ditugu, baita Jose Fermin Gomezenak ere.

Izugarrizko afizioa zutela eta ahal zuten guztietan elkartu eta plazako Larretxean futboleant jokatzen ibiltzen zirela gogoratzeko dute, eta jokatu ere hainbeste egiten zuten non lurrari belarra jaiotzen ere ez zioten uzten, erabat han ibilita guztia lurrari omen zen.

Nola hasi zineten futboleant jolastan?

JOSETXO: Leitzan ikasten hasi ginen eta han hartu genuen ikaragarritzko indarra futboleant ibiltzeko. Koadrila polita ginen, denak nahiko ongi ibiltzen ginen... gainera beti

futboleant ibiltzen ginen, igande goizero ere bai, mezzatik atera eta denok plazara.

BATIS: Normalen mezzatik aterata ibiltzen ginen, 10:00etako meza egin eta 11:00etatik 13:30era plazan egurrean, haiek izerdiak... Majina bat aldiz gauean ere futboleant atera, ederki izerditu eta Maingo sumatzen genuenean ziztu batean jaitsi, autobusean sartu eta lanera, izerdi batean.

JUAN ANTONIO: Ahal zen guztietan ibiltzen ginen futboleant. Udaran askotan belarrik bukatu eta argia zegoenean gaueko 22:00etan plazan denak ibiltzen ginen futboleant entrenatzeko.

Zenbateko taldea zen? Nor ibiltzen zineten?

JOSETXO: Baginen koadrilatxo polita, Joanito Etxeberrikoa, Mattin Julianenekoa, Txomin Ollenekoa, Zubidiko Txomin, Batis Martiñonekoa, Josetxo Fraskunekoa eta Azpikoetxeko bi anaiak Joxe Ramon eta Juan Antonio, Jabier Mañenekoa Antonio

Juantonekoa noizbait, Pello Gereñonekoa, eta Joxe Joakin Loidikoa tarteka ere bai.

Eta onenak zein ziren?

TXOMIN OLLENE: Portero Joxe Ramon izaten zen, eta oso ona zen.

BATIS: Gol gehiena sartzen zuena berriz Aizagirre. Aizagirre bizkorra zen eta *rapidoa*, "el expreso". Ni hauen aldean haurxegoa bainintzen...

TXOMIN OLLENE: Azkarra bai, ezkerrez ere ongi aritzen nintzen eta...

JOXE RAMON: Bai baina bera han egoten zen eta eraman egin behar zitzaion dena eginda. Gero berak gola sartzen zuen.

BATIS: Oro-Plata egiten genuen, hankekin, eta azkeneko hanka zapaltzen zuenak aukeratu egiten zuen. Aurrena aukeratzeko zuenak Txomin Aizagirre hartzen zuen, gero Josetxo, eta ondoren porteroa beti Joxe Ramon, Txomin Zuidikoa... Eta gero Antonio, Jabier, gero Mattin, Juan Antonio... gu beti azkenak, umexegoak ginen eta.

Zein herritan ibili zineten?

BATIS: Berastegikoen kontra aritu ginen, eta aurrenekoa *betide* galdu *Beastein*. Han galdu egin genuen, gol batez galdu, arbitroa ere etxekoen alde zegoelako... Han ez zuten belarreko kanpo futbolik, bere zelaia ongi ezagutzen zuten Kako pareko lur zola edo brea hartan. Ongi zekiten faltak ateratzen eta ondorengo *jugada* borobiltzen ere bai.

JOSETXO: Partidu hartan zalaparta dexentea ibili ginun, penalti batzuk, *manoak* ere bai eta arbitroak ez zuen ezer pitatu. Partidu guztietan zerbait izaten da eta... han ere bai.

JOXE RAMON: Guk galdu genuen partidu bat bakarra, aurrenekoa, Berastegikoan kontrakoa izan zen.

BATIS: Alvarezei zankadilla jarrita... Jesus a ze jaleoak!. Errebantxa Areson izan zen, hemen gauzek aldatu ziren, eta garaipena aresoarrentzat izan zen 5 eta 1.

JUAN ANTONIO: Eta hor politena da Berastegira joan ginela Patxikuneko furgonetan sartuta.

BATIS: Ezkurrara ere ailegatu ginen, Oletxeko aitonak eramanda, *4L* zahar batean. Ez dakit zenbat joan ginen zazpi-edo eta egurra eman guk... eta hango bat bazen gu baino zaharragoa eta bakarron bati ostikoa eman eta hantxe salsa. Ia zarpatik helduta ibili ginen! Baina gero ongi bukatu genuen.

JOSETXO: Berrobikoak ere etorri ziren hona beste behin, 29 eta 1 haixe irabazi genuen.

29 gol sartzeko denbora ere beharko zen... zenbat irauten zuten partiduek?

BATIS: Ez zen orain bezala 45 minutu... gutxiago izango zen, baina Berrobikoak txarrak ziren eta... guk *menden, menden...*

JOSETXO: Ez ziren oso onak eta, gu polittekin ginen eta...

JOSE FERMIN: Ordu erdiren bat... ordu erdi eta ordu erdi edo izango zen partida.

Partidu bat gogoratzekotan zein izan zen garrantzitsuenetakoa?

JOSETXO: Partidu handiena jokatu zen Santio egunean Arruitzen, hau desafioa izan zen: Malloetan elkartu eta desafioa Larraungo selekzioa bezala ziren haiek, futbolista onak bazituztela eta, kanpoan jokatzeko zutela eta...

JUAN ANTONIO: Ailegatu ginenean esan ziguten ez zirela denak elkartu, falta zituztela



Jose Ramon Olazabal.

hiru hoberenak eta ezin zutela jokatu. Gu bitartean ikaragarriko kanpoan futbolen aritu ginen jo ta ke. Puntatik puntara luzea zen... lasterka nekatu egiten zen... eta gero han azaldu ziren eta jokatu zutela.

JOSETXO: 3 eta 1 irabazi genuen, eta Joxe Joakin Loidikoa ere han ginun eta Gerreñoko Pellok ere asko jokatzen zuten eta, gu ere hoberenak presentatu ginen, beti irabazteko prest.

TXOMIN OLLENE: Ni orduan defentsan ibiltzen nintzen, Joxe Ramonek ni han egotea nahi zuen eta... Aurrean bazituzten azkar antzak, Barberia hori eta, gero beste bat Martin bazuten. Haiei kendu egiten nien nik azkar, haiek baino azkarragoa ni eta.

JOXE RAMON: Jende asko joan zen Aresotik Arruitzera, gehienak kotxeetan, jende asko mugitu zen.

Noiz arte ibili zineten futbolean?

TXOMIN OLLENE: Urteak iraun zituen, soldadu joan aurre arte. Soldadu joandakoan *hor ya...*

BATIS: Gero kozkorrago ginela parrandan hasi ginen, lanean hasi ere bai. Eta jaietan badakizu, mezak eta utzita eta... eta piskana piskana utzi genion jokatzeari.

JOXE RAMON: Ni joan nintzenen Salesianotara 16 urterekin eta geroztik ez genuen jokatu gehiago.

Ze prestaketa egin zenituzten? Porteriak ekarri...?

JOSETXO: Porteriak egin genituen, baina kozkorrak e! 7 metroko inguruakoak, Leitzako mendian kruze ondoan piñuaren entresaka

egin zen, eta guk Aresoko plazara bizkairean ekarri eta han jarri genituen.

Herritarren arteko partiduek ere egin omen zenituzten... gazteak zaharren kontra...

TXOMIN OLLENE: Bai Peuneko Inazio eta, Alkotzeko Mattin zena eta, ziren zaharrak.

BATIS: Baina *pikea e!* Partidu bat *betide* oso *pikantea* atera zen. Krixton euriak eta, trumobe jasak eta...

JUAN ANTONIO: Hori neretzako izan zen, gazteak zaharrei 9 goleko bentaja eman zela.

JOXE RAMON: 9 goleko bentajarekin hasi eta zaharrek sartu zuten aurreneko gola, Fraxkuneko Inaxiok. 10 eta 0.

JOSE FERMIN: Peuneko Inaziok gehiena jokatu zuten, eta baloia nola ateratzen zuten lurretik oraindik ikusten ari naiz... Han ez zegoen larratxerik denak ziren zuloak eta lokatzak. Eta Inazio oihuka "aiba aiba aiba" eta nola ateratzen zuten baloia kanpo erditik eta aurreraino joaten zen.

JUAN ANTONIO: Bai gu ere gazteagoak ginen eta pixka bat ikaratu ere bai horrelako oihuekin...

JOXE RAMON: Gertatu zen San Pedro ingurua zela, pesta bastante inportantea eta eguraldi polita zen hasierakoan. Baina gero ikaragarriko trumoi jasa sartu zuten, *desagueko* tuboak eta guztiak zikindu ziren orduan plazan ere dena ura 30 cm inguru... zenbait arbolen ondoan erreka osoa ere bai.

JOSETXO: Arbolan azpietatik, jokoan, ikaragarriko euriak ari ziren, turmobeia eta *ueee* euri botatzea, alai ere han futbolen, segi, Fraxkuneko Inaxio, Luis Minerora, Mattin Ezkerra, Peuneko Inazio ere haiekin, Joxe Joakin Loidikoa, eta lehenbiziko sartu zuten Inazio Fraxkunekoak kriston zalaparta, *geon arten* hasarretu, eta gaizki ibili ginen, kriston espektakulua zen eta han ez zegoen uzterik, arbitroa Antonio Ibiurkoa zen, gizarajoa ederrak aditzen zituen, bate kulpeik gabe. Guardasolakin arbitroa arbolen azpitan. Erditik ez zegoen ibiltzeik, arbolen azpian euri gutxiagok jotzen zuten da...

Pozez gogoratzen dituzte garai haiek, noski aspaldiko kontuak dira, 45-47 urte atzera egin behar baita, eta nahiz eta batzuetan aipatzen dituzten data eta zenbakiak ez diren bat etortzen, emaitzarekin bai, horrekin guztiak ederki gogoratzen dira.

HITZ GURUTZATUAK

Erantzun Aresoko euskalkian eta eraman letra zenbakidunak beheko taulara. Aresoko esaera zahar bat aurkituko duzu.

- Besape
- Bigun
- Lehiatil
- Eroriko latza
- Ile luze eta zarpaila
- Berdindu edo kimatu gabeko adar ziria
- Zorabio
- Asko hitz egiten duena
- Ekain
- Trumoa
- Ezpaineekin egiten den txistu bizkorra
- Mozkorraldi
- Merienda
- Bultzatu
- Atsedeen hartu
- Lokatza
- Urrun
- Berehala
- Murmorio
- Izoztu

1	2	L		Z		R			
		3		R					
			4		T				
	Z					T		5	6
				K		7			R
A	R			8	Z		A		
		9				D		10	D
							A	11	A
	A			A	12	A			L
	T					13		E	
				R		14	S		
15				E			N		
				R	16				
							17	A	U
					S	18	I		
	19	20							
				U	21	I			
						22			R
			23		M		N		
	24			L					

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---

7	8	9	10	11
---	---	---	----	----

12	13	14	15	16	17	18
----	----	----	----	----	----	----

19	20	21	22	23	24
----	----	----	----	----	----

HIEROGLIFIKOAK

1. Artoa, garia, banabarra... neurtzeko ontzia. Kilo terdi inguru gai sartzen zena.

OD
ER
IM
AF
LOS
?
IS
OD



2. Baratze eta soroetan txoriak uxatzeko jartzen den gailua.



3. Saskia.



4. Masail.





"Barrio Txinoko ate gorrieta".

ZERGATIK BARRIO TXINO IZENA?

Areson denek ezagutzen dugu *Barrio Txinoa*, baina nondik heldu da izen hori? Herriko jendeak izen horren jatorria zein den ba ote dakien jakin nahi izan dugu.

Galdera hau egin zaie: Zergatik uste duzu deitzen zaiola Barrio Txinoari "*Barrio Txino*"? Hona hemen jasotako erantzunak:

- Beharbada kalearen formagatik deitzen zaio horrela.
- Garai batean emagalduek bizi zirelako bertan.
- Komertzio edo truke asko izaten zelako kale horretan.
- Jende berezia eta xelebrea bizi zelako.
- Herri batean auzo berri bat egiten zenean jartzen zen izena
- Bakarren batek txiste gisa jarri ziolako izen hori.
- Bertan, neskak biltzen ziren kontuak esateko eta mutilak erakartzen zituzten.
- Oraindik ere badituzte begi atxinatuen antzekoak, gaur egun Barrio Txinon bizi diren aresoar batzuk.
- Horrela deitzen den kalea herri askotan izaten da.
- Hor bizi den jendeak zerbaitengatik berezia dela sentitzen du.
- Hor bizi den jendea oso *kotilla* delako.
- Ez dakik zergatia baina oso harro nago hor jaio naizelako.
- Broma asko egiten genuen kontu hori zela eta... harro gainera.